

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko irailaren 5a

Mikelarena eta Larretxea, euskararen galeraren ikertzaile

■ Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan 'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' izenburuko ikerketa lana aurkeztu zuen Fernando Mikelarena historialari beratarrak joan den uztailen. Bidasoa Ikerketa Zentroaren baitan Mikelarenak Patxi Larretxea soziologoarekin batera egindako lana da, eta Nafarroako euskararen galera aztertzen du. Ikerketak jasotzen duenez, duela bi mendera arte Nafarroa nagusiki euskalduna zen, eta kopuru absolutuak kontuan hartuz gero, herrialderik euskaldunena. XVI. mendetik hona, ordea, euskararen galera etengabea izan da gure herrialdean, batez ere azken 200 urteetan. Mikelarena eta Larretxearen ustez, euskara zokoratuta eta elite autoktonoen babesetik urrun bizi izanak azaltzen du, besteak beste, etengabeko galera. ■



Fernando Mikelarena —ezkerraldean— eta Patxi Larretxea, Berako Legia karrikan.

LUIS AZANZA

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Istripu ikaragarriak izan dituzten kotxe herdoilduz beterik daude goizaldeak, baina argazkilariei auto bakarria interesatzen zaie, instant bat lehenago luxuzko bizimoduaren ikurra zen Mercedes bat, ondoren desguaze batean marka guztietako utilitarioekin elkartuko dena. Azken tabernetako argiak itzali direnean *flash*-en txanda hasi da kale barkatietan eta ikusle asko, etxera bueltatzen ziren gautxoriak edo besterik gabe logalerik ez eta paseatzera atera diren senar-emazte aspertuak ikuskituzunik gabeko heriotza hurbilagoez, hilkutza bihurturiko kotxe merkeagoez oroitu dira, biharamunean irudiak telebistan ikusiko dituzten askori gertatuko zaien bezala. Pretilaren gainean senargaiari musua ematen ari zitzaion neskatosa negarrez hasi da bat-batean, bi-

Goizalde herdoilduak

hurritutako burdin-zati batzuen artean atera zuten lehengusu maitearen irudiak gogora etorri zaizkionean. Paris gizarte mediatikoaren biltokia da beste gau batez, eta komunikabideetan sekula aterako ez direnek beren betiko isiltasunari eutsiko diote orain ere munduaren aurrean. Zertarako hitz egin, zertarako oihukatu inork ez badie kasurik egin behar. Aljeriako sarraskiek bi minutuko informazioa baino ez dute merezi, ez dute *glamour* nahikoa, eta gehienez estatistika batean sartuko dira, lurpean jarritako lehergailu txiki horien biktimak bezalaxe. Haiengatik ez du inork negarrik egingo Buckingham Jauregiko ateetan, ezta loreak daramatzan punk itxurako neska gazteak ere; nola aldatzen diren gauzak, kamarada, hemendik gutxira aldizkari arrosak ira-

kurriko dira gaztetxeetan eta fanzineak ahaztu beharreko iragan baten arrastoak baino ez dira izanen.

Gauza hauetan guztietan pentsatzen ari nintzen Sena ibaiaren ondoan. *Flash*-en argiek itsutu egiten ninduten eta zure eskua bilatu nuen, baina ez zegoen libre, argazki kamera txiki horietako bat zeneraman, beharbada erabili ahal izanez gero aberastuko zinela pentsatuz. Ez zizuten utzi, ordea, poliziak urduri zeuden, argi gorriak eta urdinak gero eta ugariago ziren, eta azkenean alde egitea erabaki genuen. Orduan galdetu zenidan zer egin nahi nuen. Ez zegoen aukera gehiegirik, zure etxera ala nire zulora, filme amerikarretan bezala. Bagenekien sunsitutako kotxez beterik egonen zirela bide guztiak goizalde herdoilduan. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Fitero: Monasterioan organo kontzertua izanen da gaur, hilak 5, 11:00etan, Nafarroako XIII. Organo Musika Zikloaren barruan. Raul del Toro Sola izanen da organo jolea.

Mañeru: Nahi ta Nahiez eta Laukote taldeen kontzertua izanen da gaur, hilak 5, 23:00etan, plazan.

Bargota: Balerdi Balerdi eta Fluor Bost taldeek kontzertua egingen dute heldu den astelehenean, hilak 8, gaueko 24:00etatik aurrera, herriko plazan.

DANTZA

Iruñea: Joaquín Cortes dantzariak 'Pasión Gitana' flamenko ikuskaria taularatuko du gaur, hilak 5, Iruñeko zezen plazan, 22:00etan. Lehen lerroetako eserlekuak gozatzeko 5.000 pezeta (200 libera) ordaindu behar da, bigarren lerroetakoetan eseritzeko 4.000 (160 libera) eta Cortes harmailetatik ikusi ahal izateko 2.000 (80 libera).

ERAKUSKETAK

Burlata: Fermin Alvira Palaciosen 'Cantares' izeneko margo erakustaldia ikusgai izanen da Kultur Etxean hilaren 14ra arte.

Lizarra: Zumalakarregi jeneralari buruzko erakustaldia ikusgai izanen da Gustavo de Maeztu Museoa azaroaren bira arte.

Iruñea: Mariano Arsuagaren mar-goak Gotorlekuan ikusgai izanen dira hilaren 26ra arte.

BESTELAKOAK

Barañain: Argazkigintza lehiaketa deitu du Udalak. Argazkiak txuri-beltzean egin behar dira, eta azaroaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Irabazleak 200.000 pezeta (8.000 libera) irabaziko ditu, eta bigarrenak 50.000 (2.000 libera).

Beire: Pailazo teknikari buruzko ikastaroa antolatuko du Narrentrepe antzerki taldeak hilaren 26, 27 eta 28rako, aktoreentzat, hezitzaileentzat eta zaletuentzat. Pablo Zubikarai aktorea izanen da ikastaroko zuzendaria. Lo egiteko tokia eta janaria barne, ikastaroak 15.000 pezeta (600 libera inguru) balioko du. Izena emateko epea hilaren 24an burutuko da.

Iruñea: Asteartero eta ostiralero txistulariekin eta gaiteroekin dantzaldia izanen da Sarasate pasealekuan, 19:30etatik 21:30etara.

Iruñea: Emakumeei laguntza eskaintzen dien Andrea Zentroak (Marcos Goñi z/g, Txantrea) ordutegia aldatu du. Aurrerantzean zabalik izanen da 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara astelehenean ostegunera. Ostiralean goizez ordutegi berbera izanen da, eta arratsaldean itxita egonen da.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Markak hausten

Asteleheneko egunkariaren batek erru-siarrendako elikagai bakarrenetakoak ogia eta patatak direla zioen. Orrialdeko bazter batean, letra ttikian eta argazkirik gabeko informazioak horren ondorioak ere aipatzen zituen, eskola umeen artean hamarretik bederatzik osasun arazoak dituztela azpimarratuz. Ustezko sozialismotik benetako kapitalismorainoko bide gogorraren datu adierazgarriak, Europa osoa asaldatu eta mugituarazi beharko luketenak.

Asteleheneko egunkarietan bertan Aljeriako egoera izugarriaren berri eman ziguten, ez lehen orrialdean, ez titular handitan. Izan ere, aipatu egunean bazen orrialde gehienak behar zituen gairik eta, beraz, inork ez zituen Afrikako gerrak aipatu. Egunkariaren orrialde gehienak hartzen zituen printzesaren ondoan zegoen beltz gixajo hura ikustean, ordea, ahantziriko gerra horiek gogoratu nituen. Aljeriatik bezala Afrikatik ere kazetariak urrunduagatik, noizean behin, baten bat hara hurbiltzen delarik, sarraskiak milaka lagunetan zenbatzen ditu eta, hurrengo egunean, komunikabideek horixe iragartzen digute nazioarteko orrialdeetako bazter batean,

letra ttikian, argazkirik gabe, edo, gehienez, artxibokoa erabiliz, Afrikako beltz gixajo guztiak berdinak direlako.

Lady Di, ordea, ez zen zenbaki bat, bakarra baizik. Bakarra, aberatsa, printze baten emazte ohia eta errege izanen denaren ama. Argazkiek erakutsi digutenez, noizbait beltz horietakoren bat ikusi eta musu bat ere eman zion inguruan telebista guztiak lekuko zituela. Haren heriotzak ahantziriko gerrak eta gosea komunikabideetatik kanpoago utzi izana ez da harrigarria. Azken finean, heriotzak berdintzen gaituela egia izan arren, askoz politagoa da Ritz hotelean afaldu ondorengo printzesaren heriotza, Afrikako edozein tokitan goseak bi urteko haurrari eragindakoa baino. Batez ere haurraren gorpuaren ondoren sairen bat ikusten bada.

Kazetarion zeregina albisteak bildu, sailkatu eta aztertzea omen da, mundua hobeki ezagutu eta, ahal dugun neurrian, hobera alda dezagun. Gaurkoan ezin liteke asteko kronika baikorrik egin ustezko mundu zibilizatuaren gizartean, eta bereziki komunikabideetan, erregelariaren marka guztiak berriro ere hautsi direlako.



Lady Di, Elton Johnen ondoan, Gianni Versaceren hiletetan.

EFE

asteko pertsonaiak



Javier Miranda
Osasunako bazkidea

■ Javier Miranda Osasunako bazkidea zentsura mozioa aurkezteko prest dago Gaztelu plazako taldeko Zuzendaritzaren aurka. Irigarai Osasunako presidenteari eta haren zuzendaritza taldeari lau partiduko epea eman die karguak uzteko, eta hauteskundeak deitzeko. Hori egiten ez badute, Mirandak sinadurak bilduko ditu Osasunako bazkideen artean, hurrengo batzarrean mozio zentsura aurkezteko, eta bere burua lehendakari gaituzteko. Mirandak iragarri du lehendakari izateko lortzen badu, kargua ahalik eta lasterren utziko duela, eta hauteskundeak deituko zituela. Osasunaren aginte krisialdiak aurrera darrai. Ezkurraren garaia asperragoak ziren, baina seguruagoak.



Jose Maria Arakama
Ekonomia sailburua

■ Jose Maria Arakama Nafarroako Gobernuako Ekonomia sailburua Madrilen izan zen herenegun, Estatuari ordaindu beharreko kupoa negoziatzeko: Arakama Estatuko Hazienda idazkariarekin elkarrizketatu zen. Bileran, Madrili ordaindu beharreko kupoa erabakitzeke oinarri bezala orain arteko portzentaia (% 1,6) mantentzea erabaki zuten. Zerga berezien atala, berriz, zehaztu gabe utzi zuten hurrengo bilera baterako. Nafarroako alkoholaren kontsumoaren gaineko zergak biltzen zituen lehendik ere, eta orain tabakoarenak eta erregaienak hartuko ditu bere gain. Madrigo eta Iruñeko gobernuak ados daude Kontzertu Ekonomikoaren berrikuntzan, eta diru kontuak zehaztea baino ez zaie falta.

ahaztu gabe!



BARRIKADA MUSU TRUK

Iruñea: Barricadak zuzeneko diskoa grabatuko du heldu den igandean, hilak zazpi, 21:30etatik aurrera Iruñeko Zezenplazan. Zurrumurruek diotenez, horixe izanen da musika talde iruindarraren azken grabazioa, 14.a eta azkena. Akaso zurrumurrua egia delako, Zezen Plazan musu truk sartzerik egonen da: kontzertua gozatzaren truke ez da ordaindu behar izanen. Barricadakoek haien betiko kantak joko dituztela iragarri dute. Rockzale malenkoniatsuek La silla eléctrica, Barrio conflictivo edo eta Okupación bezalako aspaldiko harri bitxiak gozatu ahal izanen dituzte. Zuzeneko diskoak 17 kanta izanen ditu. Beraz, Barricadakoek gutxienez 17 kanta joko dituzte, eta oso litekeena da gehiago ere jotzea. Bestalde, zezenplazan Barricadakoekin alboan izar madrildar handiak egingen du dir-dir: Rosendok. Horrenbestez, giro ona, bikaina, ziurtaturik dago. Sarrera dohainik, kanta zaharrak, Rosendo... Ezin da gehiago eskatu.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiraleran, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero Txirristi-Mirristi haurrentzako saioa 12.30etan.

Baztan

Udalak bailararen eta Iparraldearen arteko muga berraztertu du egunotan

Aurten lana bereziki garrantzitsua izan da, hainbat mugarri hautsi dituzte eta

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

BAZTANEK 50 kilometroko muga dauka Iparraldearekin, hain zuzen ere Lapurdiko Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta eta Itsasu herriekin, eta Nafarroa Behereko Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude eta Urepelekin. Espainiak eta Frantziak 1856. urtean Mugen Hitzarmena sinatu zutenean, muga hori guztia mugarri seinalatu zuten, eta mugarriak inguruko udalek urtero berraztertzea adostu zuten. Gauzak horrela, harrezgeroztik Baztango Udaleko eta arestian aipaturiko Iparraldeko herrietako zinegotziak urtean behin elkartu egiten dira, eta hiru egunez mendian barrelatutako mugarriak berraztertzen dituzte.

Miguel Angel Adin Baztango Udaleko zinegotziaren arabera, lan nekeza izaten ohi da hori. «Batzuek uste dute tramite hutsa dela, besterik gabe ohitura mantentzearen egiten dugula, eta ez duela lanik eskatzen. Iparraldeko zinegotziekin jateko eta edateko besterik ez gabela elkartzen. Haatik, lan nekeza da. Mugarriak mendian daude, gehienetan oso toki izkutuetan, eta asko ibili behar izaten dugu guztiak ikusi ahal izateko, jipoi ederrak hartzen ditugu». Nolanahi ere, lan nekeza izan arren gustura egiten eiz dute. «Urtero elkartzen gara, eta,

Urtero bezala, Baztango Udalak bailara eta Iparraldea banantzen dituen muga berraztertu du aste honetan, Espainiak eta Frantziak 1856. urtean sinatutako Mugen Hitzarmenak agindutakoari jarraiki. Aurten lana bereziki garrantzitsua izan da, zenbait gaztek hainbat mugarri hautsi dituzte eta,



Baztaneke 50 kilometroko muga du Lapurdi eta Nafarroa Behereko herriekin.

jakina, giro oso ona dago gure artean. Harremanak oso onak dira», azaldu zuen.

Normalean hiru egunotako

lanak ez du emaitza handiegirik ematen. «Iaz, adibidez, hondatutako pare bat mugarri topatu genituen, besterik ez», azaldu

zuen Adinek. Horrelakotan, mugarrien egoeraren berri ematen zale Madrilgo eta Parisko gobernuak, konpon ditzaten, eta kitto. Aurten, alta, lana bereziki garrantzitsua izan da; izan ere, azken urtebetean 1856an jarritako mugarriek hainbat eraso jasan dituzte. Jandarmek Uztaritzen hiru gazte atxilotu zituzten erasotzaileak haiek zirelakoan.

Adinen irudikoz, gauza araroak daude eraso horien atzean. «Normalena litzateke Uztaritzekoek ez jakitea mugarriak non dauden, toki oso izkutuetan, sasien artean egoten baitira. Norbaitek esan zien, nik ez dakit nork eta zergatik». Eraso zergaitiak ziru ez ezagutu arren, imajinatzen dituela adierazi zuen. «Suposatzen dut arrazoi politikoak egon direla, zer izan daiteke bestela? Nolanahi ere, ez da normala, mugarriek udalen arteko mugak zehazten baitituzte, ez Espainia eta Frantziaren artekoak».

Adinen arabera, asko dira kaltetutako mugarriak. «Txosten bat egin beharko dugu, kalte handiak izan baitira. Mugarriak oso harri politak dira, asko landutakoak. Batzuk hondatu dituzte, beste batzuk erabat txikitu dituzte, badira beste batzuk desagertu direnak... Kalte handia egin dute». X

Erronkari

Ezka ibaia garbitu zuten arrantzaleek igandean

■ Txatarra eta poltsa zabor ugari bildu zuten

Edume Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO Euli Arrantzaleen Elkarteak, Salmonidoak Ikeritzeko eta Hobetzeko Elkarteak (AEMS) eta Gurelur elkarteak 50 bat kide Erronkarin elkartu ziren joan den igandean, Ezka ibaia garbitzeko. Zehazki, AEMS elkarteak kudeatzen duen arrantza-barrutia garbitu zuten, aurtengo arrantza sasoiari amaiera emanez.

Hiru elkarreentako kideak goizeko 9:30etan elkartu ziren Erronkarin eta arratsaldeko 13:30ak arte aritu ziren lanean. Azaldu digutenez, ehundik gora poltsa zabor bildu zuten igandean egindako garbiketean. «Orain dela bi urte egin genuen lehenengo, eta orduan baino plasti-

ko gutxiago bildu dugu, baina txatar gehiago, ordea», azaldu dute.

Arrantzaleek Erronkariko Udaleko arduradunekin hitz egin zuten garbiketara egin aurretik, ibaian bildutako zaborrekin zer egin adosteko. Zabor poltsak edukiontzien ondoan utzi zituzten herriko langileek biltzeko, eta txatarra, berriz, kamioi batean jaso zuen Udalak.

Joan den igandekoa ez da Nafarroako Euli Arrantzaleen Elkarteak eta AEMSeko kideek egiten duten lehen garbiketara, aurretik, abuztuaren 10ean, Aribeko arrantza-barrutia garbitu baitzuten. Halako ekintzen bidez, ibaiak garbi eduki eta zaindu behar direla gogorarazi nahi dute elkarte horietako kideek. X

Zangoza

Jaiak ospatuko dituzte ostegunetik aurrera

■ Zazpi egunetan algara nagusi karraketan

Erredakzioa / Iruñea

JAIK ailegatuko dira datorren ostegunetan Zangozara, urtero legez, eta zazpi egunetan algara, musika, dantza eta parranda izanen dira nagusi herriko karraketan barrena.

Ostegunetan, hilaren 11, eguerdiko 12:00etan botako dute udaletxeko balkoitik Zangozako jaien hasiera iragarriko duen txupinazoa. Egun berean, eta gainontzeko guztietan, haur eta helduentzat ekitaldi ugari izanen da. Jaien lehen egunean, adibidez, ekitaldi nagusia herri dantzen emanaldia izanen da arkupeetan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Hilaren 12an meza nagusia egingen dute goizeko 11:00etan.

Udalbatza prozesioan abiatuko da San Salvador elizarantz, bandera, mazukariak, erraldoi eta buruhandiak, txistulariak, udal bandak eta Rocamador dantza taldeak lagunduta. Arratsaldean, berriz, 17:30etan, lehen zezenketa egingen dute, eta jarraian bigantxak. Hilaren 13, 14 eta 15ean ere zezenketa izanen da.

Datorren astebururako egitarau luzea prestatu dute: haurrentzako antzerkia, dantzaldiak, su festa, karaokea, erraldoi eta buruhandiak eta abar.

Zangozarrek hilaren 17an agurtuko dituzte herriko jaiak. Goizaldeko 02:00etan erraldoren agurra eta *Pobre de mi* izanen dira, aurtengo jaien azken ekitaldiak. X

Atarrabia

Herriko eguna ospatuko dute bihar eta etzi atarrabiarrek

■ Igandean, besteak beste, herri bazkaria izanen da

Erredakzioa / Iruñea

ATARRABIARREK biztanleek herriko eguna ospatuko dute asteburuan, Etxe Beltza elkarteak, Udalen laguntzaz, antolatuta. Bihar, goizeko 11:00etan hasiko dira eguneko ekitaldiak, bizikleta lasterketarekin. Atarrabiako neska-mutilek parte hartuko dute Alas Peñak antolatutako proban. Arratsaldeko 17:30etan, berriz, pilota partidua izanen dira kiroldegian.

Kirolaren ondotik, musika izanen da Nagusi larunbatean Atarrabian. Arratsaldeko 18:30etan, hasteko, jota jaialdia egonen da Udaletxeko plazan, Brotes Navarros taldearen eskutik, eta, ordubetan beranduago, dantza jaialdia Mikelats taldearen eta Atarrabiako txistularien eskutik. Arratsaldeko 20:00etan, azkenik, kontzertua eskainiko dute San Andres abesbatzak eta Atarrabiako Musikariak taldeak.

Atarrabiako Eguneko ekitaldi gehienak, dena den, igandean izanen dira. Egitaraua goizeko 10:00etan hasiko da. Ordu horretan, dianak joko dituzte herriko kaleetan barrena Zintzarri eta Oria txarangek. Ordu erdi beranduago, erraldoren eta kilikien konpartsa aterako da kalera, gaitariekin batera, eta 11:00etan, berriz, txistulari eta malabareak. Ordu berean, hamaiketako eskainiko du Antxo VI.a Jakintsua enparantzan Gure Txolarre elkarteak. Udaletxeko plazan, halaber, herriko artisauen erakusketa zabalduko dute, 11:00etan ere bai. Eta eguerdian, hara abiatuko dira herriko talde guztiak Antxo VI.a Jakintsua plazatik, kalejiran.

12:30etatik aurrera, Udaletxe plaza izanen da herritarren bilgune. Alde batetik, erraldoi eta kilikien konpartsa egonen da han, eta, bestetik, Paz de Ziganda dantza taldeko kideek emanaldia eskainiko dute. Ondoren, herriko akordeoi taldeak eta txarangek hartuko dute jai egunaren lekukoa.

Arratsaldeko 13:30etan herri-kirolak nagusituko dira Udaletxeko plazan. Besteak beste Gorriti eta Nazabal aizkolariak eta Zelaia harri-jasotzailea ariko dira. Leku berean herri bazkaria egingen dute 14:30etan. Bazkalostean, Atarrabiako Nerea Bruño eta Lesakako Xabier Silveira eta Iñigo Olaetxea bertsoarietako saioa eskainiko dute. Atarrabiako Egunari amaiera emateko, Drindots taldearen eskutik dantzaldia izanen da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. X

Nafarroako euskararen galeraz

'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' ikerketa lana amaitua da

Patxi Larretxea eta Fernando Mikelarena iker-tzaile nafarrak Bidasoako Ikerketa Zentroko kide dira. Baina ez da hori esku artean duten proiektu komun bakarra, 'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' izenburuko ikerketa lanaren egile baitira biak. Lan horrek, besteak beste, Nafarroako euskararen galeraren datu estatistikoak bildu ditu.

Edurne Elizondo / Bera


FERNANDO MIKELARENA historialaria da; Patxi Larretxea, berriz, soziologoa. Biak dira 'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' ikerketaren egileak. Lan horren lehen datuak joan den uztailaren Donostian plazaratu zituzten, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetako mintegi batean.

Mikelarena eta Larretxearen ikerketak zenbait ardatz nagusi ditu: oro har, euskarak Nafarroan izan duen presentzia ikertu dute, bai eta 1876tik 1910era bitartean euskarak nafar identitatearen formulazioan bete zuen lekua, mende hasieratik nabarismo foralake euskarari buruz egin duen balorazioa, euskara eta nazionalismoaren arteko harremana, eta azkenik, gaur egungo nafar identitate kolektiboaren formulazioan euskarak betetzen duen papera ere.

Euskarak Nafarroan izan duen presentzia aztertzeke, zenbait errolda zaharretako datuak bildu eta zenbatu dituzte, eta Nafarroako euskararen urtez urteko mugekin alderatu, garai bakoitzean zenbat euskaldun zegoen kalkulatzeko. Larretxea eta Mikelarenak azpimarratzen dutenez, euskarak etengabe galdu du Nafarroan zuen lekua XVI. mendetik hona, eta batez ere azken 200 urteetan. Duela bi mendera arte, ordea, Nafarroa nagusiki euskalduna zen, eta kopuru absolutuetan herrialderik euskaldunena.


1587. urtean, hain zuzen, bi heren hartzen zituen euskarak Nafarroan, eta 97.000 euskaldun zeuden. 1778an 121.000ra igo zen euskaldunen kopurua, baina portzentaiak, berriz, behera egin zuen hamar bat puntu. Hala eta guztiz ere, eta ikertzaile nafarrek nabarmentzen dutenez, «garai horretan Nafarroan euskaldun kopuru garrantzitsua zegoen».

1778. urtetik, euskararen galera etengabea izan da Nafarroan. 1863. urtean, adibidez, 95.000 euskaldun zegoen, biztanleria osoaren herena gutxi gora-behera. 1904. urtean 73.000 ziren euskaldunak (biztanleriaren



Patxi Larretxeak eta Fernando Mikelarenak Nafarroako euskararen galera aztertu dute.

LUIS AZANZA



Fernando Mikelarena:

«EAJ Nafarroan sartu zenean oligarkia beldurtu zen eta diskurtso foralista bultzatu zuen. Dikotomia horretan gaude oraindik»

«Hemen galdera nagusia da ea Nafarroako eskuinak zergatik ez duen identitate kolektiboari buruzko diskurtso ausartagoa bultzatu»

% 23,7), eta 1935 urte inguruan 60.000 (biztanleriaren % 17,3). Gaur egun, kopurua are txikiagoa da, biztanleriaren ia % 17, euskaldunak eta ia euskaldunak zenbatuz gero.

Azken mendeetako galera ulerzteke, euskara ez zela inoiz ofiziala izan azpimarratzen dute Larretxea eta Mikelarenak, Nafarroako elite autoktonoek ez zutela inoiz babestu, «ez 1521-1841 tartean Nafarroa erresuma zenean, ezta 1841-1978 tartean ere, Nafarroa Espainiako Estatu liberalaren parte zenean».

Tradizionalistak

nazionalismoaren beldur • Hala eta guztiz ere, XIX. mendeko azken laurdenean zenbait intelektual euskaltasunaren alde agertu ziren. 1877. urtean, adibidez, Euskara Elkarteak sortu zen, euskara bultzatu eta babesteko. 1876-1910 tartean, halaber, euskararen aldeko iritzia hedatu zen Nafarroan zehar. Mikelarena eta Larretxeak argi dute zein izan zen horren arrazola: «Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako foruak desagertzeko elkartasun sentimendua piztu zuen karlista zein liberalen artean». Aipatzekoak dira, gainera, komunikabideen eta Diputazioaren beraren euskararen aldeko jarrera. Bidasoako Ikerketa Zentroko kideek nabarmentzen dutenez, ordea, «eskuinaren euskalduntasun hori erretorikoa zen».



Patxi Larretxea:

«Nafarroako agintariak ez dute sekula euskara berekotzat hartu eta horrek ondorioak ekarri ditu»

«Euskara mantendu bada, zekitenek transmititzeko borondatea izan dutelako izan da»

Euskararen aldeko giroak ez zuen gehiegi iraun. 1910. urteaz geroztik, ordura arte Nafarroaren izaera euskalduna aldarrikatu zuen euskuin tradizionalistak mezua goitik behera aldatu zuen, euskal nazionalismoaren balizko hedapenari erantzunez. Euskararen ordez foruak bilakatu ziren Nafarroaren bereizgarri, «nafartasuna foraltasunera murriztuz».

Euskalduntasunari buruzko tradizionalisten mezu aldaketaren adibide argi eta garbia aipatzen dute Mikelarena eta Larretxeak beren ikerketan, *Diario de Navarra* egunkariarena, alegia. 1908. urtean kexu agertu zen egunkariko zuzendaria, Raimundo Garcia, Baztango herri bateko jaietan txistua kendu nahi zutelako. 1923an, berriz, Iruñean txistulari banda bat sortzea proposatu zenean, halaxe idatzi zuen zuzendariak: «Nondik sortu da Iruñean, jotaren herrian, euskal musika hori tronuratzeko ahalegin hori? Soinu ona izango du baina ez da hori geurea».

Bortziritako ikertzaileen ustez, adibide horretan agertzen den nafartasuna definitzeko egiten den euskaltasunaren definizio modu hori, gaur egunera arte mantendu da. Eta hori nekez uler daiteke, lanaren egileen ustez, «kontuan hartuta euskal nazionalismoak historikoki oso arrakasta gutxi izan dueja Nafarroan».

◆ Patxi Larretxea eta Fernando Mikelarena ◆ Ikertzaileak

«Euskara nazionalismoarekin parekatu dute»

Patxi Larretxea soziolo-
goa eta Fernando Mikelarena historialaria Beran aurkitu genituen, eta hantxe izan genuen haiekin hitz egiteko aukera, bien artean osatu duten 'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' izenburuko ikerketa lanari buruz.

Edurne Elizondo / Bera

■ Nola sortu zen ikerketa egiteko aukera?

Fernando Mikelarena: Gai hori betidanik interesatu zait eta Patxiri proposatu nion elkarrekin egiteko aukera. Nolabait Bidasoa Ikerketa Zentroaren dinamikan sartua dago saioa. Gaia egiteko aukera, egia erran, galdera bat bezala etorri zitzaidan burura: jakin nahi nuen zein neurritan dagoen harremana Nafarroan hizkuntza eta nazionalismoaren artean. Jakin nahi nuen zergatik herri oso euskaldun batzuetan gaur egun oraindik euskal nazionalismoak ez duen indarririk, Baztanen adibidez. Hori izan da abiapuntua.

Patxi Larretxea: Fernandok proposatu zidanean gaia interesantea iruditu zitzaidan. Baina, egia erran, lanaren zati nagusia Fernandok egina da; Nafarroako biztanleriari buruz egin zuen tesi doktora eta han datu pila bat bildu zuen. Hortik abiatuta eta errealtatea ezagutzuz, horren jarraipena egin dugu. Iruñetik beheko zonaldea, gainera, Fernandok nahiko ongi ezagutzen du. Azken batean, euskararen inguruan mendialdeko egoera nahiko ezaguna da, ikerketa lan zailena erdialdetik beheko aztertzeari izan da.

■ Euskararen galera aztertu duzue. Bildu dituzuen datu estatistiko guztiak ikusita, zer-nolako balorazioa egiten duzue horri buruz?

Larretxea: Ikerketan argi gelditu da hizkuntza bat mantentzeko edo indarra izateko boterean dagoenak edo indar politikoa, kulturalak eta eliteak duten garrantzia. Nafarroako agintariek ez dute sekula euskara berea balitz bezala hartu eta horrek ondorioak izan ditu. Mantendu baldin bada izan da zekitenek, familiek borondatea izan dutelako transmisioa egiteko, Baskongadetan diktadura garaian gertatu zen bezala. Orain Baskongadetan gobernuan alderdi nazionalista bat dagoenez, ziurtatuagoa dute borondatea, hizkuntzak ofizialtasuna badu eta badago ahalegin bat. Nafarroan, momentuz ez da hori gertatzen, sekula baino txarragoa da egoera. Hizkuntza bat mantenduko da hitz egiten dute-



Bidasoa Ikerketa Zentroko kide dira Larretxea eta Mikelarena ikertzaileak.

LUIS AZANZA

nek transmititzeko borondatea badute, hori faktore bat da, baina ofizialtasuna bezalako mekanismoak ere beharrezkoak dira.

Mikelarena: Gainera testuinguru positiboa behar da, positibo eta berezia. Holandan, adibidez, nahiz eta testuinguru politikoa hagitz positiboa izan hizkuntza pikutara joan da, inork ez du erabiltzen. Hagitz zaila da bilatzea zeintzuk izan behar duten hizkuntza bat bultzatzeko faktoreak.

■ Zuen ikerketan aipatzen duzue XIX. mendeko azken laurdenean euskararen aldeko iritzia hedatzen hasi zela, eta eskunik berak euskalduntasunaren aldeko diskurtsoa erabili zuela. Diskurtso erreterikoa izan zela azpimarratzen duzue, ordea.

Mikelarena: Bai. EAJ sartu zenean Nafarroan 1910ean, alderdi horrek bere lehen egitura zabaldu zuenean, orduan, Nafarroako oligarkiari izugarritzko beldurra sartu zitzaion, eta pentsatu zuen bere intereserako onena zela diskurtso foralista hori bultzatzea. Handik honat dikotomia horretan gaude Nafarroan.

■ Euskara baztertzeko nabarrismo foralak izan duen grina ez duzuela ulertzen azpimarratzen duzue zuen lanean, nazionalismoak historikoki arrakasta gutxi izan baitu Nafarroan.

Larretxea: Hori da guk planteatzen dugun galdera, Nafarroako tradizionalistek zergatik ez duten sartu euskara Nafarroako idiosinkrasian. Gertatu da euskara eta nazionalismoa parekatu

dituztela; harreman zuzena ezarri dute bi terminoen artean, euskara ikasteak erran nahi du nazionalista izatea haientzat. Eta argi dago erlazio hori ez dela zuzena: boto nazionalistak, adibidez, behera egin du azken urteetan, eta euskara ikasten duen jendea gero eta gehiago da. Beraz, zergatik halako beldurra euskara Nafarroaren ezaugarritzat onartzeari? Euskarari onura handia ekarriko lioke une honetan Nafarroako Gobernuan dagoenak edo partidu nagusiak erranen balu euskara nafarren ezaugarri nagusietako bat dela. Legitimizazio handia emanen lioke. Baina historikoki euskara zokoratu da uste izan delako euskara ikasteak euskal nazionalismoa gehituko lukeela.

Mikelarena: Hemen galdera nagusia da Nafarroako euskunak zergatik ez duen identitate kolektiboari buruz diskurtso ausartagoa bultzatu. Azken urteetan bakarrik Juan Cruz Alli ausartu zen hori egitera, baina apustu hori gaur egun ez da existitzen.

■ Gobernuan ez, baina nafar gizartearen bada egun euskararen aldeko jarrera, inkestek azaltzen dutenez. Ez da hala?

Larretxea: Badirudi jende anitzek lasai aski onar dezakeela edo onartzen duela euskara berea balitz bezala, euskal estatu bat sortzeko ideiarik gabe. Erriberan, adibidez, mota askotako boto-emaelek lasai aski onartzen dute euskara ikasi nahi dutela, adibidez, seme-alabei hizkuntzaren aberastasuna transmititzeko. Gobernuak, beraz, zergatik da euskararen beldur?

Mikelarena: Aipatu behar da, hala ere, Nafarroako kasua ez dela berezia. Beste leku batzuetan gauza bera gertatzen da, Galizian edo Palentzian, adibidez. Badute hizkuntza propioa eta orain arte nazionalismoak ez du indarririk.

■ Hori guztia kontuan hartuta, zer-nolako irakurketa egiten duzue euskarak Nafarroan duen etorkizunari buruz?

Mikelarena: Iritzi positiboa dut. Hurrengo hamarkadetan ziur aski euskaldunen kopuruak gora egingen du, pixkanaka. Hemendik 20 urtera, igoal, % 20ra iritsiko da. Nik hori uste dut.

Larretxea: Nire ustez bi gauza bereizi behar dira. Garbi dago ezagutza edo euskararekin harremana izanzen dutenen kopuruak gora egingen duela. Baina, bestetik, erabilera praktikoa dago. Eta nire kezka hor dago. Mendialdean bada dinamika bat eta etorkizun ona izan dezake hemen euskarak. Ezberdina da Iruñeko eta handik beheko egoera. Han euskaraz dakien edo ikasten duen jendeak erabiltzeko zer aukera izan du? Nire ustez dinamikarik garrantzitsuena Iruñean egonen da, hiriburua delako. Hirugarren gauza bat dago, gainera, aipatzeko. Garai batean euskara mantendu zen euskaldunek euskaraz bakarrik zekitelako. Nire gurasoek euskara transmititu zidaten euskara bakarrik zekitelako, ez zuten bertze aukerarik. Oraingo belaunaldiek bi aukera izanzen dituzte. Gaur egun mundu guztiak bi hizkuntza ezagutzen ditu; beraz, aukeratu egin behar da.

Larretxea eta
Mikelarena,
UNEDen ikasitako
bi ikertzaile
Bortzirietan

BERAKO kaleetan ezezik, Bidasoa Ikerketa Zentroan ere bat egiteko aukera dute gaur egun Patxi Larretxeak eta Fernando Mikelarenak. Nafarroako euskararen galeraren inguruan egin duten ikerketa izan da elkarrekin egin duten lehen lana, baina ziurrenik, ez azkena. Zentroak emanen die elkarlanean jarraitzeko aukera.

Bidasoa Ikerketa Zentroak, hain zuzen, joan den otsailaren 7an eman zuen bere burua ezagutzera Bertizko Jaurerrian, eta orduz geroztik, lanean ari dira elkarteko kideak, bertako historia aztertu eta ezagutzera emateko asmoz. Mikelarena eta Larretxeak jakinarazi digutenez, adibidez, Juainas Paul eta Izaskun Abril Bidasoa Ikerketa Zentroko kideak Lesakako historiari buruzko ikastaroa prestatzen ari dira jada, datozen hilabeteetan abian jartzeko. Berako historiari buruzkoa ere egingen dute, negu partean ziurrenik.

Bidasoa Ikerketa Zentroa, dena den, ez da bi ikertzaile nafarren arreta eskatzen duen proiektu bakarra. Fernando Mikelarena, adibidez, Zaragozako Unibertsitatean da irakasle. Dokumentazio administratiboa irakasten du han 35 urteko beratarrak. Emaztea, gainera, lankide du unibertsitatean, Historiako irakasle titularrak baita.

Mikelarenak UNEDen ikasi zuen, bai eta doktore tesia egin ere. Nafarroako biztanleriaren azterketa aukeratu zuen gaitzat. Mikelarena, halaber, artikulu askoren egile da eta hainbat kongresutan parte hartu du. Aipatzekoa da, gainera, Bidasoa Ikerketa Zentroaren sorrera Fernando Mikelarenari zor zaitola neurri handi batean, Berako historialariarena izan baitzen ideia.

Patxi Larretxea orain dela sei-zazpi bat urte iritsi zen Berara, baina Arantzakoa da jaiotzez. Delineantea da lanbidez, eta Mikelarenak bezala UNEDen ikasi zuen karrera. Soziologia aukeratu zuen Larretxeak. Bortzirietan, hala ere, euskararen alorrean egin du lan gehienbat: «Hemengo euskaltegian ibilia naiz, IKAren sorreran eta abar».

Bertsolaritza eta literatura-
ren munduan ere murgildu izan da Patxi Larretxea. Bertsolaritzari dagokionez, Nafarroako txapelketako epaimahian aritua da. Literaturaren alorrean, Iruñeko Udalak antolatuta Egle Berrientzako Literatur Lehiaketan parte hartu du hainbatetan. X

Xanti Begiristain

Isolamendua eta beste gauza batzuk

■ Deigarria da ikustea mundu honetan gertatzen eta egiten diren gauza bitxiak. Esate baterako, orain dela hilabete gutxi arte Herri Batasunari esaten eta leporatzen zitzaion ez zela joaten instituzioetara, edota gehiagotan joan beharko zuela. Han, hau da, legebiltzarreetan, Senatuan eta abarretan tratatu behar direla hainbat eta hainbat gai.

Baina une batez gogora dezagun zer gertatu zitzaion Josu Muguruzari eta Iñaki Esnaolari aldi hartan.

Eta orain, gaur egungo garaira itzulita, ikusten dugu lehengo alderdi politikoko *demokratiko* berberak direla, esaten eta saiatzen ari direnak politikoki isolatzen, eta sozialki ez, hau jada gehiegikeria hutsa dela beraien berrek ere ikusten dutelako. Gainera, oraingo hau ez da lehendabiziko aldia saiatzen direna. Gogora ditzagun, esate baterako, Gabriel Urralbururen garai *loriatuak* berak. Ziur as-

alderdi politikoko *superdemokratikoe*k parte hartu behar zuela, arazo hori tratatzeko, Legebiltzarrean eta Giza Eskubideen Aldeko Batzordean, baina orain aldiz, utzi nahi dituzte Batzorde horretatik kanpo, gainerako guztiek hitz egiteko.

Zer esanen dugu? Beno ba, denori noiz edo noiz ikusten zaigula belarria, eta garbi dagoenez, politikari *goldemokratiko* horiei belarria eta gauza gehiago ere ikusten zaizkie.

Gauza bitxi eta deigarriekin jarraituz, oso laburki bada ere, pixka batez iruzkindu nahi dut zer-nolako paper garrantzitsua jokatzen duten gizarte honetan komunikabideek, adibidez, Atarrabiako Udalean hartutako erabaki bat berehalaxe bihurtu zuten albiste nazionala. Galesko Printzesaren heriotzaren kasuan sinestarazi nahi digute horixe dela egun hauetan mundu osoko arazorik handiena eta bakarra. Eta gainera Printzesa ohi hori santu

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Paulo Zamarripa, Txorierriko irri eragilea

■ NAFARKARIA irakurtzen dugun ekialdeko euskaldunondako, Bizkaiko kontuak oro har oniegi ezagutzen ez ditugunondako hots, desagun, zentzurik zabal-zabalenean, Txorierriko Bilbotik iparrera diren Deus-tuak, Erandiok, Leloak, Loiuk, Lauktzek, Gatikak, Deriok, Zamudiok, Larrabetzuk, Lezamak eta Sondikak osatzen dutela, eta hainbatek Mungia bera ere sargarria litekeela baieztatzen dute duda izpirik gabe. 1877.ean Santandere aldeko Laredon sortu zen arren, Paulo Zamarripa Uragak txorierritarra ukan zuen kabia, Sondikan pausatu baizioten goraki kiribilkatzeko parda, gurasoen bien sorterrian alegia. Hantxe eta Durangon bete zituen lehenbiziko ikasketak, apezgai gei zela joan. Gasteizaratu aitzinetik. Apezbidean Salamancan izan zen desgostuz: «Erdal-errian bizi naz orain / Erderearen lurra / Ementxe nago Salamankako / Uri erdelzale zarra». Haatik, 1906.etik aitzina, eta apez berria zelarik, bizkait errteta soilik ibilarazi zuten erretore: Bermeo aldeko Almika auzoan, Enkarterniko Otcharan barridean, Gatikan, Bermeon berean, eta bere Sondika kuttunean. Bertan zendu zitzaigun 1950.eko abuztuaren 17an. Abondo lanen egilea, iñork ez dio ukatu euskararen maisu gorena izan zenik, alabaina, bai oster, bai baino gehiago bada ausartu Zamarriparen balio literarioa zalantzan ezartzea: «*Usa lenguaje claro y relativamente puro, en el tono justo que hoy creemos conviene al pueblo lector. Los asuntos no son muy literarios, predominan los jocosos inspirados en juegos de palabras, etimologías chuscas, perogrulladas, más bien que en situaciones cómicas.*» Orixe zen 1927.eko RIEV aldizkarian horren xorroki mintzo zena, baina literatur kritiko gehientsuenen jukua laburbiltzen zuelakoan bagaude. Guziarekin ere, etzen makala Zamarripak bizkaieraren zuen menderakuntza, eta Azkueren beraren laguntzale gisa ihardun zuen Lekeitiokoak tajutu 1905.eko hitzeginako, bereziki Txorierriko euskarari zegokionean. Ezin da ahantzi ere egin, Euskaltzaina izan genuela, ordekoa bazen ere, Altubek gerraoste bitartean largaturiko kaderan 1941. urteik zendu arteraino.

Hogei urtetan hasi zen bere irri idazkiak argitaratzen. Azkuek lematu *Euskaltzale* izparringian, eta orduko zenbait argitalpenetan bere umore lakarra isuri bazuen ere, *La Gaceta del Norte* egunkariko euskal orrialdea izan zuen agertoki hauta. Urteetan agertu idazkiak ordea, ez zituen, beharrik gero, hemerroteketan hilobiratu, eta hiru bilduma karrikaratu zizkigun sondikarrak. *Kili-Kili: barre ipuñak* —Bermeo, Gaubeka, 1930— hiruretan ezagunena dateke Klasikoak sailean arragertu zitzaigunetik. Aurretik ere Zaparradak eta euskaltzaleen atseginerako eman zuen argitara Bilboko Emeterio Verdesen irarkolan 1926.ean. Honetan, besteetan bezala, euskara kezka iturri sakon zuela erakutsi zigun, nahiz eta, bere arrangura papereartzeko, drolekeriatan labantzen zela beti iduri: «*Calleu zaitze, mutis bascofilo danok, cerraui, ia, al momento, labio ta ezpanok! Gloria buenhablistari perpetuamente!*» Descubridu cabezok bera encontrantean, merced señor orreri, hallatu dugu aqui, baskuentze moderno bat, pulcroa, pues daki ignoratzen ebena Mogel famosoak eta otros que se llaman linguista honrosoak. Bai, sí, buenhablistaren baskuentze ñuevoa vosotrosena baño da mucho obagoa ta que facilla concho! Entero facilla baskuentze au sabitzeko cualquiera da habilla. *Firi-firi: ipuin ta naste* —Bermeo, Gaubeka, 1935— hirugarren irri lana dugu: «*Lana egin daigun txiritxi, ta agertu daigun firi-firi.*» Honetan nabarmenagoa dugu garalko giro politikoa nahañaz egimiko iruzkin satirikoak, gure egungo Nafarroan aise egunera daitezkeenak, aiseegi apika: «*Toledoko probintziako erri batek Torrijos dauko izena ta sozialista bat alkate. Ta alkate sozialistek, guzurra dala esan lei baña, bere neskamea dauko. Ta bere neskame orreri, bera zeozetarako dala erriko alkate erakusteko, erriaren lepotik erregalu polit bat egin gura izan deutso. Ezta milegro. Tiral Egon be eztago ezetarik milegrorik sozialistetzako. Sozialista alkate onentzako, beste sozialista askontzako lez, naikoa da gauzea non dagoen ikusi ta gero, gauzeari eskua jaurtitzeko modua eukitea, bai norberaganduteko, bai norberak gura daunari emetoko. Ta alkate sozialista onek, ikusirik, olango baten, bere erriko neskato eskola bat maistra barik dagoala, arin konturatu da an daukola entxufe yazeko bat bere neskamentzako ta... jakiña, ba, Joakiña!... bere neskameari emon deutso entxufe ori, bera bertako maistra egiten daula. Tamalez, bere maistretzearen alogera kobratzeko, onetarako egifilko papertxuan bere firmea botateko esan bear izan deutso au esan leyon bat edo batek, eta orduan yakin da maistra barri orrek eztakiala firmetan. Ostean, orra or neskatoa beingo baten maistra eginda. Beingoan egiten dabe sozialistak euron karrera».*

Olerkigilea ere bazen izan gure Zamarripa, eta hainbat lore jokatun aurkezturiko nahiz etxeko kajoietan gorderik zituen olerkiez apailatu zuen *Gora begira: olerki goi usañekoak* bertsoetgia, orori txori-kantari, serioa eta alai, sakonki eta hergelto: «*Ardaoz beterik ator / i moskortute ao / Zagi danak batera / Baño be moskorrao / Buru zoro ori baño / Askozaz astunao / Dekok gorpuz ustela / Satsa baña ustelao / Nigana ator moskorti / Ardaodun txarrie / Baltzeoan lagundu / Dayan neuk? Ordie / Alde orik! Etxoak guè / antojagarrie!*» ■



Floren Aoz eta Adolfo Araiz, HBko Mahai Nazionalako kideak.

JOXE LACALLE

ki, orain ere, zulo berean sartuko dute hanka jokamolde horrekin.

Besteak beste, Irlandan, eta Palestina eta Israelen bake prozesuak martxan jarrita dau dela ikusi ondoren, nori bururatu ahal zaio, hemen konponbide egokia lortzeko hoberena dela Ezker Abertzalea isolatzea, gatazkaren aktore nagusien arteko harremanik ez izatea, elkarrizketa eta negoziatorik ez praktikatzea eta abar?

Gaur egun, munduko edozein aldetan, gero eta argiago ikusten denean horixe dela bide bakarra eta hoberena gizarte eta politikako gatazkak konpontzeko, hemengo politikari gehienek, eta Frantzia eta Espainiakoez ez badute ikusten begien bistako hori, ba, horrexek berak adierazten du aipaturiko politikari horien buru argitasuna, edo bestela beren benetako borondate politikoa eta eragin-kortasuna.

Konparaziora, euskal preso politikoen sakabanaketa dela eta, Blancoren hilketa gertatu arte, Herri Batasunari esaten zioten (beti

hutsa eta ongile ikaragarri handia zela, eta Charles senar ohia eta *paparazzi*-ak eta beste batzuk, ordea, deabruaren azala.

Bitxikeria gehiago. Herenegun bertan eman omen zieten askatasuna Brasilen 16 pertsonari. Ordura arte esklabutzan izan omen ziztuzten. Baina okerrena zera da, azken urte hauetan 50.000 pertsona gutxi gora-behera, izan dituztela era berean herrialde horretan bertan. Horretan ez dira asko *luzitu* komunikabideak eta argazkilariak.

Eta bukatzeko beste bitxikeria motz batzuk. Benetan *zurragarria* suertatu zitzaidan Burlatako Uranga parkean ikustea nola kendu zuten, nire begien aurrean, «Euskal Herri askatu!» jartzen zuen pankarta bat. Jakina, alkatearen aginduz eta adierazpen askatasunaren izenean. Eta Euskadi Irratian, esaterako, entzuten denean antzeko zerbait: «Tete Montoliu, Espainiako piano jolerik hoberenetariko...», edota «Hemen, Espainian...». Zer pentsatuko zenuke? Nik behintzat, zerbait ez dabilela ongi. ■

Ingurugiroa zaintzeko ideiak

'Gure konponbideak' izeneko erakusketa zabaldu zuten larunbatean Bertizko Natur Parkean

Jostailuak, arrainak eta onddoak

GURE KONPONBIDEAK izeneko erakusketa ez da Bertizko Jaurerriko gela eta paretek aurten hartu duten bakarra. Izan ere, urtero lau erakusketa antolatzen ditu Nafarroako Gobernuak han, ekaina eta azaroa bitartean. «Maiatzean hasten gara erakusketa denboraldia prestatzen, eta, lehenengo, ekainean egiten ohi dugu», azaldu digu Bertizko Jaurerriko langile Seve Mindegiak.

Bertizko Jaurerriko bosgarren erakusketa denboraldia izanen da aurtengoa. Eta denbora tarte horretan egin izan diren guztien ardatza ingurugiroa izan da. «Kontuan hartuz Bertiz natur parkea dela, naturaren inguruan egituratzen dira gure jarduerak guztiak, baita erakusketak ere», azpimarratu du Seve Mindegiak.

Aurtengo denboraldiari Eguzki jostailuak izeneko erakusketak eman zion hasiera. Ekainaren 1etik 29ra bitartean egon zen zabalik, eta jende andana hurbildu zen erakusketak bildutako jostailu bitxiak ikustera. Denek bazuten ezaugarri komuna: eguzkiaren energiaren bidez mugitzen ziren. «Oso erakusketa bitxia izan zen, eta denek gustukoa, gainera. Haurrei bezala asko gustatu zitzaion helduei ere», aipatu digu Mindegiak.

Eguzkiari esker mugitzen ziren jostailuen ondoren, ibailetako arrainek hartu zuten lekukoa Bertizko Jaurerriko erakusketa denboraldian. *Como pez en el agua* izena zuen erakusketak, eta uztaila eta abuztua bitartean egon da ikusgai Bertizen.

Larunbatean Gure konponbideak inauguratu zuten —denboraldiko hirugarrena—, eta zabalik egonen da hilaren 21era bitartean. Ondoren, oraindik zehazteke dagoen erakusketa jarriko dute leku berean. Laugarren hori, dena den, ez da aurtengo azken erakusketa izanen, azaroaren 15era bitartean onddoei buruzkoa zabalduko baitute Bertizen, Seve Mindegiak adierazi legez. Aurten, beraz, lauen orde z bost erakusketa egingen dituzte Bertizen.

Seve Mindegia Natur Parkeko langileak esan bezala, bestalde, oporraldian hurbiltzen diren turistak dira Bertizko erakusketak ikustera gehien joaten direnak. Hori dela eta, abuztua amaituta, behera egin du egunotan Bertizera inguratu diren bisitarien kopuruak. «Nabari da jende gehienarentzat bukatu direla oporrak». Hala ere, Gure konponbideak erakusketak jende asko erakarri du lehen egunotan, Seve Mindegiak azpimarratu legez. Turistekin batera, inguruko herrietako jendea ere hurbildu da hura ikustera. X



Ingurugiroari buruzko 25 panel bildu dituzte Bertizen Gure konponbideak erakusketan.

LUIS AZANZA

Edurne Elizondo / Iruñea

INGURUGIROA errespetatzeko eta zaintzeko ardura guztiona da: gobernuena, noski, baina baita gurea ere, denona. Hori da 'Gure konponbideak' izeneko eta egunotan Bertizko Jaurerriaren ikusgai den erakusketak zabaldu nahi duen mezu nagusia. Nafarroako Gobernuaren bidez iritsi da gure herrialdera, eta 25 paneletan, ingurugiroa eta naturaren alorrean elkartasuna eta sormena oso garrantzitsuak direla erakutsi nahi du.

Erakusketaren helburua da, halaber, ingurugiroarekin zerkusirik duten berri guztiak ez direla txarrak azpimarratzea. Eta horretarako, hain zuzen ere, ingurugiroa zaintzeko edozeinek egin ditzakeen gauzen berri ematen du. Ekimen horien artean mota eta leku askotako adibideak aurki daitezke, gainera. Lekuari dagokionez, herrialde askotatik iritsitako panelak daude Bertizen ikusgai: Euskal Herrikoak bertakoak, Kataluniakoak, Galiziakoak, Madrildgoak eta beste hainbat tokitakoak.

Panelen edukia, halaber, askotarikoa da. Bilboko San Ignazio ikastetxeko ikasleek, adibidez, energia elektrikoaren kontsumoa % 60 jaiste nola lortu duten azaltzen dute Bertizen ikusgai diren panel horietako batean: lanparen kopurua gutxituz, etengailuena handituz eta gure ohiturak aldatuz, besteak beste, irakur daitezke.

Bilboko ikasleen ingurugiroa zaintzeko ideta, dena den, ez da Gure konponbideak erakusketako bakarra. Beste asko daude,

Joan den larunbatez geroztik, eta hilaren 21era bitartean, Gure konponbideak izeneko erakusketa zabalik da Bertizko Natur Parkean, 10:00etatik 13:30ak arte goizez, eta 16:00etatik 19:30ak arte arratsaldez. Erakusketa Espainiako Gobernuo Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren ekimenez sortu da, eta Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Sailak ekarri du Bertizera. Ingurugiroaren aldeko hainbat eta hainbat ekimenen berri ematen du erakusketak 25 panelen bidez.

eta guztiek Bertizko bisitarien arreta erakarri dute lehen egunetik. Hala azaldu digu natur parkeko langile Seve Mindegiak. Bisitariak erakusketako paneletan gidatzea da Mindegiaren betebeharra egunotan, eta aipatu digunez, orain arte erakusketak ikusi dutenak pozik ateratu dira. «Erakusketa anitza da, mota askotako istorio, ideia eta bitxiak erakutsi daitezke eta bisitarien interesa erraz pizten dute. Ikusleek ikasten dute ingurugiroaren alde gauza asko

egin daitekeela etxean bertan ere».

Talde eta pertsonen ekimenak • Nafarroan hain ezaguna den Emauseko Traperoak elkarteak ere bere zeregina zein den azaltzeko panela jarri du Bertizko Jaurerriaren. Ustez deustarako balio ez duten gauzak bildu, konpondu eta saltzen dituzte, hain zuzen, Emauseko Traperoek. Nafarroan, halaber, birziklatzearen aldeko apustu garbia egin dute. Elkarteak Frantzian sortu

zen, Bigarren Mundu Gerraren ondotik.

Eroski supermerkatu katearen Ekoplan, Bakearen Aldeko Bizikletak edo energia eolikoari buruzkoa dira Bertizko erakusketan bildu diren panelek jasotzen dituzten beste ekimen batzuk. Horiekin batera, talde eta erakunde ezberdinekin batera, norbanakoek ingurugiroaren alde abian jarritako proiektuak ere badira erakusketako protagonistak.

Ourensen, adibidez, jende askok bat egin zuen orain dela urte batzuk Ridimoas izeneko basoa erre zenean, eta Ribadavia herriko irakasle batek basoan bizi ziren animaliak zaintzeari ekin zion, bere ikasleekin batera. Burgosen, berriz, publizitatean mundua utzi eta *Losino* arrazako zaldiak berreskuratzeko lanean hasi zen Ricardo de Juana izeneko gizona. Pertsonen ekimenak dira Bertizko erakusketak bildu dituenetako batzuk.

Ikusleei dagokienez, erakusketak denek zuzendua dagoela azpimarratu du Seve Mindegia Bertizko Natur Parkeko kideak: «Edozein etor daiteke ikustera», nabarmendu du. «Egia da haurrek pazientzia gutxiago dutela eta lehenago nekatzen direla, baina hala eta guztiz ere panel guztiak ikusi eta irakurtzen dituzte», gaineratu du Mindegiak. Gainera, haurrentzako propio egindako panelak badira Bertizko erakusketan. Haietan, birziklatzeari buruzko xehetasunak aurki ditzakete neska-mutiek. Ingurugiroa zaintzeko ideiak ezaugu nahi dituenak, beraz, badauki non duen egunotan aukera.



Birziklatzeari buruzko panela dago haurrentzat propio ikusgai.

LUIS AZANZA

◆ Raul del Toro Sola ◆ Organo jolea

«Organoari ez zaio garrantziarik ematen»

Nafarroako Organo Musikaren XIII. Zikloaren barruan, Fiteroko monasterioko elizan kontzertua eskainiko du gaur Raul del Toro Sola organo jole gazteak, arratsaldeko 7:00etatik aurrera. Organo jole nafar gazteen artean garrantzitsuenetakoa da Raul del Toro, eta ez da harritzekoa, kontuan hartuta organoa jotzea betiko ametsa izan duela. Amets betea, gainera.

Edurne Elizondo / Iruñea

BERE bizitzako urte gehienak Zangozan eman baditu ere, ikasketek Iruñera, jaioterrira, ekarri dute Raul del Toro berriro ere. Iruñean izan genuen guk ere harekin hitz egiteko aukera, aste hasieran. Organo eta musikarako duen zaletasunaren, eta bere kezka eta arduren berri eman zigun musikari gazteak.

■ **Kontzertu askotan parte hartu duzu jada. Berezia al da zuretzat Nafarroako organo zikloa?**

Parte hartzen dudan bigarren aldia da. Nafarroan dugun organo ziklo luze bakarra da, gainera, eta alde horretatik, bai, berezia da niretzat, are gehiago aurten, Fiteroko organoa inauguratzea egokitu baitzait herritu ondoren. Ohore handia da niretako.

■ **Noiz eta nola sortu zen zure eta organoaren arteko harremana?**

Txikitik piztu zitzaidan zaletasuna. Normalean pianoa jotzen hasi ondoren pizten zaie musikarierik organorako zaletasuna, baina niri alderantziz gertatu zitzaidan, eta pianoa ikasten hasi nintzen, pianoa ikasi behar delako organoa ikasi aurretik. Dena den, esan behar dut pianoa gaur egun asko maite dudala eta oso harro nagoela karrera egin izanaz. Baina organoa izan da betidanik jo nahi izan dudana tresna, eta ilusio handiz ari naiz lanean, musikak lan eta irmotasun asko eskatzen baitu.

■ **Zer dauka, ba, organoak zu hainbeste liluratzeko?**

Egia esan, ez dakit. Teklatu eta hodi asko dituela esaten ohi du

jendeak, baina niretzat hori ez da garrantzitsua. Gainera, musika tresna sinpleenak ere badu xarma berezia. Agian organoaren tinbrea da gehien erakartzen nauena. Lekuak ere badu zerikusirik, gehienbat elizetan jotzen baitugu eta eszenatokiri bereziak baitira horiek. Txarrena da askotan ezusteko galantak hartzen ditugula, eta batere ongi ez dauden organoak jo behar izaten ditugu zenbaitetan.

■ **Noraino iritsi nahi duzu musikaren eta organoaren munduan?**

Edozein organo joleren desio nagusia organo garrantzitsu, eder eta on baten jole titularra izatea da, bai eta niretzat ere, eta horrekin batera irakaskuntza. Baina zaila da, batez ere egoera txarra delako, eta organoari ez zaiolako inolako garrantzirik ematen, zerrendan azkena da eta. Nafarroan, egia esan, egoera pixka bat hobea da beste leku batzuen aldean, badago tradizioa. Eta hori gertatu da, alde batetik, Frantzia gertu dugulako, eta bestetik, Miguel Etxebeste bezalako figuren lanari esker. Etxebeste, hain zuzen, berrikuntzaren buru izan zen. Hala eta guztiz ere, gaur egun, organoaren egoera ez da oso on gure herrialdean, eta Europan dagoen maila lortu nahi badugu gauza asko hobetu beharko dugu.

■ **Zu, hain zuzen, Organoaren Lagunen Nafar Elkarteko kide zara. Organoaren egoera hobetzea izango da, beraz, zuen zeregina?**

Gure zereginik garrantzitsue-



Raul del Toro Sola, organo ole gaztea, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan.

JOXE LACALLE

na, egunotan abian den zikloaren eta beste zenbait kontzerturen antolakuntza da. Denbora batean, halaber, Nafarroako Gobernuari gure aholkularitza eskaini genion, Nafarroako organo historikoak berritzeko. Horri esker, organo zoragarriak dira, adibidez, Iruñekoak orain. Baina, orokorrean, organoa bultzatzea da gure betebeharr nagusia, eta hori lortzeko, behar-beharrezkoa da organo jole titularren figura berreskuratzea, hau da, organo jole kompetentea, organoa ezagutzen duen eta jotzen dakien musikaria. Bestela, gaur egun gertatzen ari dena gertatzen da, hau da, organo asko eta asko

badagoela erabat zokoratuta, utzita.

■ **Organoaren Lagunen Nafar Elkartea, halaber, Iruñeko auditorioaren alde agertu da. Zikloaren aurkezpenean bertan aipatu zenuten hiriak duen hutsune hori. Auditorioan organoa jar dezaten nahi duzuela azpimarratu duzue halaber.**

Bai, hala da. Baina, zoritxarrez, gaur egun dugun ezbaidak ez da oraindik auditorioan organoa egonen den edo ez, baizik eta zer motatako eraikina egingen duten. Antza denez, bi ikuspegi daude, bat biltzar jauregiaren aldekoa, eta beste bat kulturala-

goa, musika aretoaren aldekoa. Lehendabiziki, beraz, ezbaidak hori irabazi beharko da, eta, gero, noski, organoa eskatuko dugu guk. Jendeak uste du organoa bakarrik elizetan entzuteko musika tresna dela, baina oker daude, edozein musika tresna garbitasunez gozatzeko akustika argia duen aretoa behar baita. Auditorio batean, beraz, beste leketan ezin entzun daitezkeen aberastasun eta xehetasunak igartzen ahal zaizkio organoari. Edonola ere, auditorioa erabat beharrezkoa da Iruñean, sinestezina baita oraindik musika entzuteko areto egokirik ez izatea. Oso-oso atzeratuta gaude. X

s o s l a i a

Raul del Toro Sola Iruñean jaio zen 1973an. Dena den, bizitzako urte gehienak Zangozan eman ditu, eta horretatik, Zangozakotzat jotzen du bere burua. Aitortu digunez, «herriko jendea haserretu egiten da egunkarrietan iruindarra naitzela idazten dutenean».

Zangozako kontserbatorioan hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten. Ondoren, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan jarraitu eta amaitu zituen ikasketak. Besteak beste, Esther Andueza eta Joaquin Treseerras izan ditu irakasle.

Gaur egun, goi mailako organo ikasketak egiten ari da Raul del Toro Sola, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan, eta Jose Ignacio Martinez Zabaleta organo katedrati-koa du maisu. Halaber, Montserrat Torrenten ikaslea da Badalona- n. Ikasketak amaitu bitartean, Leireko monasterioan organoa jotzen du, gainera.

«Auditorioa erabat beharrezkoa da Iruñean, sinestezina baita oraindik musika entzuteko areto egokirik ez izatea. Oso-oso atzeratuta gaude»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

